

U30 BIZITZAK ERDIGUNERA

!!!





Urtarrilak 30erako Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitu duen greba orokorrearekin bat egin du Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Izan ere bizitzak erdigunean jartzen jarraitu nahi dugu, indarkeriari, berdintasun ezari, prekaritateari, sexualitate eredu hegemonikoei, lanaren sexuaren araberako banaketari, kontsumo ereduari, familia patriarkalari, edertasun kanonari eta zapalkuntza guztiei aurre egiteko. **Bizitzak ERDIGUNERA!**

Gaur egun dugun egoera sozio-ekonomikoa ez da inondik inora kasuala. **Ongizatea eta aberastasuna sortzen duten eta bizitza aurrera ateratzeko baliatzen ditugun jarduera guztiak LANA dira, ordainduak izan edo ez.** Gure jendartean, bi espaziotan sailkatu dira jarduera horiek, espazio publikoan eta pribatuan, eta ondoren, lan produktibo eta erreproduktibo gisa bereizi dira. Ikuspegi horren arabera, diru truk egiten dena baino ez da lan produktiboa, eta emakumeok* dohainik egiten ditugun lanak, berriz, erreproduzioarekin, maitasunarekin eta familiarekin lotzen dira, eta hala ezkutatu egiten dira, eta balioa kentzen zaie.

Aipatutakoa modu intuitiboan ikustea ahalbidetzen du Izeberg-aren irudiak. Ikustezinaren ideia funtsezkoa baita sistema sozioekonomikoa ulertzeko. Izeberg-aren metafora erabiltzen da ekonomia grafikoki irudikatzeko eta horrekin batera, beren artean barne prozesu propioa duten bi eremu desberdinei erreferentzia egiteko. Beste era batera esanda, ikustezina den eremuan, naturatik lortutako baliabideak, zaintza eta etxeko lanak barneratzen dira eta aldiz, ikusten den eremuan, merkatu kapitalista, ekonomia finantzarioa eta Estatuak barneratzen dira.

Emakumeek egindako lan eta zaintzaren ondorioz soilik jarrai dezake sistema ekonomiko eta sozialak funtzionatzen, honexek sostengatzen baitu izeberg-a bere osotasunean. Hau dela eta, lan bezala errekonozituta egon behar lirateke.






1.-Grafikoa. Emakume eta gizonek lanari eskainitako batz besteko denbora sozialaren (hh:mm) garapena, EAE-an 1993-2013.

1.Grafikoa adierazten da emakume eta gizonek lan ordainduan, zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denbora. Jarduera horietan igarotako denboraren bilakaerari so egiten badiogu, ikus dezakegu, banaketa orekatu bateranzko joera dagoela. **Hala ere, oso argi ikusten da oraindik desberdintasunak nabarmena izaten jarraitzen duela.**

1.Grafikokan ikusten den ordaindu gabeko zaintza lanetan gizon eta emakumeen artean ematen diren desberdintasunei aurre egin ezean, ezin da lan indarrari dagokionean genero berdintasunean benetako aurrerapenik lortu.



2.-Grafikoa. Sexuaren eta zaintza motaren arabera eszedentzia kopurua EAE-n, 2017 urtean.

Amaitzeko berriz, haurren eta familiakoen zaintzarako baimenen harira 2.Grafikoan adierazten den moduan, oraindik emakumeak dira zaintzearen zama hartzen dutenak, horrek emakumeengan ondorio negatiboak eragiten dituztelarik, bai beraien diru sarreretan eta baita beraien iraganeko eskubide sozialen aitortzearen (erretiro pentsioak), amak animatzen baititu lana uztera, lanaldi partzialean lan egitera edo etxeko langile bat kontratatzerara. Horrez gain, genero desberdintasuna eta emakume eta gizonen arteko soldata arrakala handitzea eragiten du.

Guzti honegatik Bizitzak erdigunean kokatzen jarraitzeko Urtarrilak 30ean Greba Orokorra!

